

KANALAK

Gure enpresa ezagutzen hasteko marketin metodo hauek erabiliko ditugu:

·Gure alboko herrietan publizitatea jarriko dugu pixkanaka zabaltzen hasteko

·Sare sozialen erabilerarekin geure burua ere ezagutzera goaz

·Udalarekin hitz egin dugu eta iragarki publikoan jartzeko arazorik ez dutela izango esan digute eta haien laguntzaz errezago ezagutuko digute.

·Gure zerbitzuak ezagutzeko eta gure bezeroekin komunikazio zuzena izateko, web orri profesional eta funtzional bat garatuko dugu.

Hori funtsezko kanala izango da gure balio-proposamenaren berri emateko eta erabiltzaile-esperientzia osoa eskaintzeko.

Gure web orriak honako hauek jasoko ditu:

-Zerbitzuei buruzko informazio zehatza: Gure zerbitzu bakoitza, bere onurak eta gure bezeroen beharrak nola ase ditzaketen azaltzen duten atalak.

-Erreserba-gunea: Bezeroek produktuak zuzenean erreserbatu ahal izango dituzte webgunetik.

-Gure sare sozialetarako estekak gehituko ditugu, erabiltzaileei gure argitalpenak jarraitzeko eta gure nobedadeen berri izateko aukera emanez. Webguneko edukia plataforman partekatzeko aukera ere emango dugu.



